

ORKESTRA NAZIONALA

Euskal Herriko Orkestra Sinfoniko Nazionalaren lanak egiten dituenak, hau da, Euskadiko Orkestrak ez dauka zuzendaririk. Eta bospasei urte dira zuzendaririk ez duela. Antza soldatari buruzko desadostasunak zirela-eta bota zuten Hans Graff izeneko zuzendari alemaniarra eta harez gero Orkestra Nazionalak ez dauka arduraldi osoko zuzendaririk. Hiruzpalau zuzendari gonbidatuekin saiatzen dira zuloa estaltzen. Horrek, nik uste, sekulako eragina dauka orkestraren kalitate garapenean, zuzendari eta orkestraren arteko konpenetrazioan. Pentsa zer litzatekeen bizpahiru entrenatzaile dituen futbol taldea. Tira, badaukagu bat: Euskadiko selekzioa. Eta badakigu nolako partiduak diren bereak, «gezurretazkoak».

Maila garrantzitsuko kontzertuen gabezia «apple quartet»-ekoekin batera egindako espetakulu patetikoekin saiatzen dira estaltzen. Baina ikusi nahi duenarentzat garbi dago kalitatezko lanari dagokionez orkestra estankatua dagoela. Egia da zaila dela gurea bezalako herri ttiki batek lehen mailako orkestra bat izatea. Gaitzerdi oinarrizko musika hezkuntza sendo bat izango bagenu. Baina honetan ere ez nuke esango gauzak oso ondo dabilzkigunik. Irakaskuntza musikala atzerriko hizkuntzenaren parekoa dela esango nuke oinarrizko hezkuntza sisteman. Haurrek ordu eta urte piloa sartu arren ez dute apenas ezer ikasten, eta pribatura jo beharra dago aurrera egingo bada. Gero atzerrira derrigorrez. Eta Euskadiko Orkestran ez dago beraiantzat tokirik. Orain udako gazteen orkestra ere sortu dute baina propagandaren itxura gehiago dauka proiektu serioarena baino. Orkestrak berak ganorazko zuzendaririk gabe jarraitzen duen bitartean behintzat, zaila egiten da kalitate duineko orkestra duin baterako proiektu seriorik dagoenik sinestea. Hor dauka Kultura kontseilari berriak zeregin garrantzitsu bat.